

OÑATIKO UDALA

20/2021 LEGETIK ERATORRITAKO BRIGADAKO PEOI eta PEOI GIDARI PLAZAK JABETZAN BETETZEKO AZTERKETA TEORIKOAREN INGURUKO JAKINARAZPENA

Deialdi honetan parte hartzeko eskaera egin dutenei hau jakinarazten zaie:

ARIKETA EGIN AURRETIK

1. Oposizioaldiko azterketa teorikoa 2024ko urtarrilaren 24an izango da goizeko 9:00etan, Eltzian (Larraña Auzoa, 16, 20569 Oñati).
 - Eraikineko hirugarren solairuko gela balioanitzean gauzatuko da proba.
 - Sarrera: ekialdetik (Musika Eltziako sarrera)
2. Ateak 8:30etan irekiko dira eta 8:55etan itxi.
3. Izangaiek NANA, pasaportea edo gidabaimena, eta boligrafo beltz edo urdina (errotuladorea ez dena) eraman behar dute ariketara.
4. Izangaiek Eltziako aipatutako sarrerara joan behar dute, NAN, pasaportea edo gidabaimena eskuan dutela eta telefono mugikorra itzalita (ez isilik, ez hegaldi moduan).

ARIKETA EGIN BITARTEAN

1. Dagokion gelara sartu ondoren, izangaia ezin izango dira komunera joan.
2. Telefono mugikorrak eta bestelako gailu elektronikoak itzalita eduki behar dira (ez isilik, ez hegaldi moduan), Eltzian sartzen denetik ariketa amaitu eta Eltziatik irten arte.
3. Ezin da eraman erloju adimendurik.

4. Hautaketa prozesutik kanpo geldituko dira ariketak irauten duen bitartean erabiltzeko moduan dagoen sakelako telefonoren bat edo beste edozein gailu elektronikoko daramatzaten izangaiek, Interneterako edo beste gailu batzuetarako konexioa duten gailu elektronikoan.
5. Ezin izango da belarritako tapoirik erabili, eta belarriak agerian eduki behar dira.
6. Gelan erabateko isiltasuna egongo da. Gainerako izangaiekiko jokabide desegoki edo gogaikarria izateak pabiloitik kanporatzea eta hautapen prozesutik baztertzea ekarriko du.
7. Izangaiek mahai azpian utzi beharko dituzte gauza pertsonalak.
8. Ariketak irauten duen bitartean, izangaiek mahai gainean honako hauek soilik eduki behar dituzte: jarraibide orria azterketarekin, erantzun orria, boligrafo urdin edo beltza eta NANA, zeinak une oro ikusteko moduko leku batean egon behar baitu.
9. Zalantzarik izanez gero, izangaiek eskua altxatu eta zaindari baten laguntza eskatu behar dute.
10. Zaindariaren eta epaimahai kalifikatzailearen jarraibideak bete behar dituzte uneoro izangaiek. Hala egin ezean, pabiloitik kanporatu eta hautaketa prozesutik geratu ahal izango dira.
11. Bertaratze ziurtagiria behar duten izangaiek, azterketa amaitzean eskatu beharko dute.

Oñatin, 2023ko abenduaren 18an

Epaimahaiko idazkariak